

UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN GAINKO EREDUAREN EZTABAIDARAKO DEIA

Bartzelonako Unibertsitatearen rektoradutzaren okupazioan partehartzen ari garen ikasle taldeak, azaroaren 20an, unibertsitate komisionatuarekin, ACUPko (Unibertsitate Publikoen Kataluniako Elkarte) lehendakariarekin, UPFko (Universitat Pompeu Fabra) errektorearekin, eta UBko (Bartzelonako Unibertsitatea) jardueran dagoen erretorearekin izandako bileraren inguruko gure jarrera azaldu nahi dugu, hala nola UBko rektoradutzaren okupazioaren baldintzak.

Azaroren 20an izandako bilera ikasle on eskakizunak administrazio publikoari eta kataluniako unibertsitate publikoetako errektoreei elarazteko baino ez zuela balio izan azaldu nahi dugu; baina bilera hau ACUP eta Kataluniako Generalitat-eko ordezkariaren aldetik elkarrizketan aurreratzeko eta zerbait emankorrean bukatzeko bideak eraikitzen hasteko konpromezu barik bukatu zen. Horrela ez zen biltzeko beste egun bat ezarri, ezta zeintzuk izango diren ikasleok eskatutako elkarrizketan aurrera egiteko komunikazioa errazteko mekanismoak. Hortaz, berriz be konpromezu formalik hartu ez zen beste bilera bat izan zen; konpromezu formalik, ez sentzu honetan, ezta ikasle on inolako eskakizunean.

Honegatik atzo ikasle taldeak azaldutako planteamenduak publikoak egin nahi ditugu. Alde batetik oso argi utzi genuen ikasleok nahi eta behar ditugun eztabaida eta elkarrizketarako esparruak sortzea eskatzen dugula. Sentzu honetan administrazioaren eta kataluniako unibertsitate publikoetako errektoreen aldetik elkarrizketa eta eztabaida bultzatzeko konpromezu tinko, argi, eta publiko existitu behar dela ulertzen dugu, hala nola honen helburuarekin, elkarrizketa hau ezin baita hitz egin hutsa izan. Eztabaida eta elkarrizketa konpromezu hau puntu hauek definitu behar dituela ulertzen dugu:

Prosezu guzti honekin, hala nola eztabaida gaiekin, ulertuta unibertsitate publiko eredu bat definitzeko balio beharko lukela; unibertsitate eredu bat zeinean kalitatezko hezkuntzarako giza baliabide eta baliabide ekonomikoak ziurtatuko diren.

Nola nahi den eztabaida hau burutu, horretarako prosezu osoa aurrera eramateko metodologia definituz.

Noiz nahi den eztabaida burutu denborak ondo ezarriz.

Nor partehartu behar duen, bertan komunitate unibertsitario eta administrazioarekin batera giza-eragileen talde zabala egon behar dela ulertuta.

Ikasleok gure herriak nahi eta behar duen unibertsitate eredu guztion artean definitzeko elkarrizketa eta eztabaida honetara gonbidatu nahi dugu. Elkarrizketa hau giro eta baldintza egokienetan gara dadin egokia litzateke unibertsitate publikoaren aldeko euren konpromezu eta burrukarengatik epaitutako UABko kideei expedientea kentzea.

Era berean ez luke sentzurik maila nazionaleko eta giza partearitze zabaleko eztabaida piztea eta aldi berean EGHEren (europako goi hezkuntza esparrua) implementazioarekin jarraitzea. Horregatik EGHEa gelditzea eskatzen dugu.

Azkenik kataluniako unibertsitate publikoetako errektoreek euren unibertsitateetako kideei (ikasle, irakasle zein AZP) EGHEaren inplementazioaren gaineko jarrera galde diezaieten eskatzen dugu.

UBko errektoradutza okupatzen ari garen ikasleok bertan jarraituko dugu azalduriko baldintzak betetzeko konpromezu tinkoa egon arte.